

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

AFRIKATUEN ERABILERA FAKTORE SOZIALEN ARABERA
HAUR HEZKUNTZAN

Egilea: Garazi Lopez de Uralde Zarraga

Zuzendaria: Iñaki Gaminde Terraza

Leioan, 2016ko maiatzaren 27an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Marko teorikoa.....	5
2. Metodologia.....	14
2.1. Datuak lortzeko metodologia.....	14
2.2. Datuak aztertzeko metodologia.....	16
3. Datuen azterketa.....	17
4. Ondorioak.....	20
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	23

ERANSKINAK

1. eranskina.....	26
-------------------	----

AFRIKATUEN ERABILERA FAKTORE SOZIALEN ARABERA HAUR HEZKUNTZAN

Garazi Lopez de Uralde Zarraga

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan honetan afrikatuen ahoskera aztertu da Haur Hezkuntzako haurretan, haien adina, generoa eta ama hizkuntza aintzat hartuta. Lanaren helburua, eta lana burutzeko egindako ikerketarena, faktore sozialek haurren afrikatuen ahoskeran duten eragina aztertzea izan da. Horretarako, Haur Hezkuntzako bi adin tartetako informatzaileei grabaketak egin zaizkie bakoitzak “tx” /tʃ/ eta “tz” /ts/ noiz ahoskatzen zuen neurtuz. Azterketan afrikatuak gauzatzeko orduan generoa eta ama hizkuntza aldagai esanguratsuak direla nabarmendu da.

Afrikatuak, fonologia, generoa, ama hizkuntza, soziolinguistika

En este Trabajo de Fin de Grado se ha analizado la pronunciación de las africadas en niñas y niños de educación infantil teniendo en cuenta la edad, el género y la lengua materna de cada niño y niña. El objetivo del trabajo y de la investigación llevada a cabo para realizar el trabajo ha sido analizar la influencia de diferentes factores sociales a la hora de que las niñas y los niños pronuncien las africadas. Para ello se realizaron grabaciones de dos grupos de edad de educación infantil para constatar cuando pronunciaban “tx” /tʃ/ y “tz” /ts/. En la investigación ha destacado la influencia del género y de la lengua materna como factores significativos a la hora de realizar africadas.

Africadas, fonología, género, lengua materna, sociolingüística

In this grade-end report it has been analysed the pronunciation of the affricates on boys and girls of pre-school education, keeping in mind the age, gender and mother tongue of each boy and girl. The aim of the report and the research made for it has consisted in analyse the influence of different social factors when girls and boys make the affricates. Two different age group of pre-school education children were recorded to measure when they made “tx” /tʃ/ y “tz” /ts/. The research has emphasised the influence of the gender and mother tongue as significant factors when pronouncing the affricates.

Affricate, phonology, gender, mother tongue, sociolinguistics

Sarrera

Gizakiok komunikatzeko erabili ohi dugun biderik arruntena ahozko hizkuntza izan ohi da. Izan ere, gizakiak izaki sozialak gara eta txiki-txikiak garenetik sentitzen dugu gainerakoekin elkarrekintzan aritzeko beharra. Jaio eta berehala ukipena bilatzen dugu, egun gutxi batzuk igaro eta begiradaren bitartez ere kontaktu horren eske gabiltza. Biologikoki zein kognitiboki garatzen goaz apurka apurka eta komunikaziorako bide berriak eraikitzen ditugu. Komunikazio biderik garrantzitsuena edo ohikoena komunikazio linguistikoa litzateke eta honen hastapenak haurrak 12 hilabete dituenean agertzen dira (Guilbourg, 2000). Haurrak ahozko hizkuntza apurka-apurka eskuratzen joango da, bizitzen dituen komunikazio egoera ezberdinen ondorioz ahozko hizkuntza era aberasgarriagoan garatuko du.

Gaur egun, eskolak zeresan handia dauka ahozko hizkuntzaren jabeakuntzan, bertan planteatu eta sustatzen baitira komunikazio egoera ezberdin asko, Haur Hezkuntzako etapan bereziki: berdinekiko harremana, familia girotik at dauden heldu ezberdinekin harremana, eta abar. Haurrak ahozko hizkuntzaren hastapenak familia eta lagunen bitartez ikasiko du gehienbat eta biziko duen prozesu horretan bere ingurune hurbileko helduak batez ere eredu izango ditu. Horregatik Haur Hezkuntzako zein beste etapetako irakasleen komunikazio gaitasunak haurrek garatuko duten ahozko hizkuntzan zein komunikazio gaitasunean eragina izango du.

Era berean, baina maila txikiago batean, gizarteak ere eragina dauka hizkuntzaren ikaskuntzan eta hizkuntza beran, gizartean gertatzen diren aldaketak zein berrikuntzak hizkuntzan islatzen baitira; hizkuntzaren edozein ataletan: fonologian, morfologian, lexikoan, eta abarretan. Honek, esate baterako, sistema fonologikoaren bilakaeran fonema batzuen neutralizazioa eragin du. Euskararen sistema fonologikoaren bilakaeran, adibidez, hainbat ikerketa egin dira (Hualde, 2010) eta ikerketa batzuetan aldagai sozial batzuen eragina azpimarratu izan da (Gaminde, Romero, Legarra, 2012). Aipatutako ikerketa gehienetan Haur Hezkuntzako umeak ez dira informatzaile gisa kontuan hartu eta komunikazio linguistikoaren oinarriak etapa honetan finkatzen direnez kontuan izan beharreko lekukoak direla uste dugu.

Aipatutako guztia kontuan izanik, eta Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia faktore sozialek haurren afrikatuen ahoskeran duten eragina aztertzea denez, Haur Hezkuntzako umeak euskararen sistema fonologikoak izandako bilakaeraren lekukoak izan dira. Horrenbestez, lekukoen adina, generoa eta ama hizkuntza aintzat hartuz hainbat grabaketa egin ditugu euskarazko afrikatuen balizko neutralizazioa aztertzeko. Horrez gain, azpimarratu beharra dago, Haur Hezkuntzako haurrek naturaltasunez egiten dutela berba eta, ondorioz, emaitzak zehatzagoak izan daitezkeela.

Gai honen hautaketa dela eta, komeni da esatea euskararen bilakaerarekiko (bai fonologikoa, bai lexikoa, eta abar) nire interesa handia izan dela beti. Era berean, lan hau garatu bitartean gaiaren inguruan izandako motibazioa areagotzen joan da eta, etorkizunean, lan honetan aztertutako faktore sozialez gain beste batzuk (herria, eskola, etab.) aztertzea polita litzateke lekuko gehiagori inkestak eginez, gai sakontzeko asmoz.

Sarrera honen osteko lehenengo atalean ikerketa garatzeko marko teorikoa azaltzen da, zeinetan umearen hizkuntzaren jabeakuntza, ikerketa soziolinguistikoetan kontuan izan beharreko aldagaiak eta euskararen sistema fonologikoaren bilakaera azalzen diren. Bigarren atalean lanaren helburua betetzeko erabilitako metodologia azaltzen da, datuak lortzeko metodologia eta datuak aztertzeko metodologia bereiziz. Hirugarren atalean bildutako datuen azterketa aurkezten da, azterketan jasotako emaitzekin batera laugarren atalean aipatzen diren ondorioei bidea eginez. Laugarren atalean goian esandako ondorioez gain, hurrengo ikerketarako proposamenak ere azaltzen dira. Azkenik, bosgarren atalean, bibliografia aurkitu daiteke, zeinetan ikerketaren oinarri teorikoen erreferentzia bibliografikoak agertzen diren.

1. Marko teorikoa

Lan honen oinarri teorikoak hiru zutabek sostengatzen dute: umearen hizkuntzaren jabeakuntza, soziolinguistika eta sistema fonologikoaren bilakaera. Lehenik eta behin umeen hizkuntzaren jabeakuntzaren prozesuan lagungarriak izan daitezkeen estrategia zein baliabideak aipatzen dira. Bigarrenik, ikerketa soziolinguistikoak egiterako orduan

kontuan izan beharreko hainbat aldagairen deskribapena aurkezten da. Azkenik, azken urteotan euskararen sistema fonologikoak izandako bilakaera azaltzen da.

Hizkuntza batekin jabetzeko orduan, haurraren ingurune hurbileko helduak eredu izan ohi dira: gurasoak, familia, zaintzaileak eta irakasleak. Askotan, eskola arduratzen da hizkuntzaren irakaskuntzaz. “Haurrak hizkuntza ikaskuntzan hasteko estimulazioa behar du, hau da, haurrak hitz egiten ikasiko du baldin eta bere inguruan berari hitz egiten dioten pertsonak badaude; heldua hizkuntza bat ikastera animatuko duen estimulua eta eredia izanik” (Eusko Jaurlaritza, 1997, 6.or.). Haurraren sozializazio prozesuan hizkuntza beharrezkoa da, ingurura egokitzen eta integratzen laguntzen baitio eta eskolak funtsezko zeregina dauka ibilbide honetan, ezagupen eta adimen-ohiturak nahiz gizartearen baloreak transmitituko baitizkio (Eusko Jaurlaritza, 1997).

Haurrak gainerako pertsonekin interakzioan arituz ikasten du berba egiten, bere inguruko pertsonekin askotariko jarduerak partekatuz. Kontuan izan behar dira umeak dituen berezko ahalmenak hizkuntza ikasteko eta haren rol aktiboa sustatuz umeari hizkuntza eraikitzen utzi behar zaio.

Haur Hezkuntzako Curriculum Dekretuan aipatzen den bezala, komunikazioa bizitzako erlazio guztien oinarria da, eta bereziki Haur Hezkuntzako etapak ohiko komunikazio-egoeretan, ahozko hizkuntzaren ulermena eta adierazpena apurka garatzea du helburu arlo honetan (Eusko Jaurlaritza, 2010). Hortaz, Haur Hezkuntzako irakaslea haurrarekin komunikatzen saiatuko da hasieratik, berarekin dituen harreman komunikatibo zuzenetan hizkuntzaz eta hizkuntzaren erabileraz informazioa emango dio (Bigas, 2000).

Haurrak ingurunearekin, irakaslearekin eta gainerako ikaskideekin komunikatzeko moduak bilatzen ditu Haur Hezkuntzan bere beharrak adierazteko. Beraz, lehen esan bezala, komunikazio-gaitasunaren garapenaren abiapuntua etapa honetan finkatu daiteke, irakasleen zereginak zeresan handia baitu; “irakasleari dagokio, haurrak egoki komunikatzen ikas dezan, hainbat bide eta aukera eskaintzea” (Argüelles eta Zelaieta, 2015, 88.or.). Horretarako, irakasleak umearen lana erraztuko du, haren ahalmenetara egokituz. Hasieran, irakasleak behin eta berriro errepikatzen diren interakzio-marko egonkorrak eskainiko dizkio haurrari. Marko edo formato hauetan, haurrari zuzentzen dizkion berbaldiak egokituko ditu, beste estrategia batzuk erabiliz eta entzule gisa

arreta berezia jarriz (Bigas,2000). Irakasleen eta haurren eguneroko komunikaziorako tresna da hizkuntza, ahozko hizkuntza hain zuzen ere, baita haurrak haien artean komunikatzen trebatzeko ere. Hortaz, ikasleen komunikazio-gaitasuna osotasunez garatzeko irakasleek hainbat ezaugarri eta estrategia kontuan hartu behar dituzte haien eguneroko jardunean (1.go taula) (Argüelles eta Zelaieta, 2015).

Irakasleek ahozko komunikazioan erabiltzen dituzten ezaugarriak eta estrategiak	
Ikasleekin konfiantzazko harremana sortu	Publikoarekiko harremana kudeatu, publikoa parte hartzaile egin
Entzuleak behatu eta analizatu	Hitzen eragina kalkulatzeko
Hasiera eta bukaera	Giltzak zein hitz jokoak erabili publikoa bereganatzeko
Entretenigarria eta atsegina izan	Motibatu eta interesa sortu
Hiztegia	Mezua modu erraz eta ulergarrian eman, publikoari egokitu
Sormena eta originaltasuna	Ahotsa aldatzeko eta keinuak sortzeko eta egiteko ahalmenaz baliatu
Koherentzia eta kohesioa	Mezuak modu logikoan esan ideien ordena mantenduz
Eskuen, gorputzaren eta begiradaren kudeaketa	Mezuari lagunduz, modu irekian jardun, entzule guztiak partaide eginez
Ahotsaren kontrola	Bolumen egokia erabili. Bolumen aldaketak errekurtso baliagarria izan daiteke publikoaren arreta bereganatzeko
	Abiadura entzuleei egokitu
	Tinbre egokia erabili
	Tonua aldatu, monotonia ekiditeko
	Ahoskera argia erabili
<i>1.go taula: Irakasleen komunikazio-estrategiak (Argüelles eta Zelaieta, 2015)</i>	

Ezagutzaren gainerako arloetan bezala, umeak aurre egingo die komunikazioan sortzen zaizkion arazoei; material linguistikoa aztertuko du, inferentziak eta dedukzioak egingo ditu, azpiko legeak aterako ditu, hipotesiak egingo ditu, etab. ez da informazioa heltzen zaion moduan gordetzera mugatuko, berreraiki egingo du. Horrez gain, aldez aurretik ezagutzen duen informazioa berraztertuko du eta material “ezagun” horrekin esperimendatuko du. Lan hori egiteko, umeak informazioa beharko du hizkuntzaz eta hizkuntzaren erabileraz eta informazio hori interpretatzeko estrategiak garatu beharko ditu. Hezitzaileak aukerak eskaini behar dizkio haurrari egiten dituen hipotesiak egiaztatzeko. Honekin batera, ume txikiaren interpretazio ahalmenak mugatuak direnez, ezinbestekoa izango da helduak haren lana erraztea, horregatik, 1.go taulan aipatutako komunikaziorako estrategia eta ezaugarriez gain, hezitzaileak hizkuntzaren ikaskuntzan berebiziko garrantzia duten hainbat alderdi izan behar ditu kontuan (2.taula).

Hezitzaileak kontuan hartu beharrekoak	Egoerak aprobetxatzeko egitekoak
Haurrek komunikazio egoeratan parte hartuz ikasten dute berba egiten	Haurren ezaugarrien arabera komunikazio egoerak sortu eta antolatu
Hizkuntzaren funtzio ezberdinak garatzeko, umeak askotariko komunikazio egoeratan parte hartu behar du	Haurren ezaugarrien arabera era askotako komunikazio egoerak sortu eta antolatu
Umeak komunikazio egoeratan parte hartu nahi eta ahal izatea	Haurrentzako esanguratsuak diren haien neurriko eginkizunak proposatu
Haurrak hizkuntzaren erabilera desberdinak elkarrizketetan ikasten ditu, berak baino gehiago dakien solaskide batekin	Elkarrizketa esperientzia aberatsak bultzatu
Elkarrizketa esperientziak onuragarriak izateko, helduak umeak esan nahi duena kontuan hartu eta haren ahalmen linguistiko eta kognitiboetara egokituko da	Bultzatuko diren elkarrizketetan adi egon behar zaio umeak esan nahi duenari eta egokitzapenak egin hitzetan zein esanahietan

Ume txikiak trebetasun komunikatiboak besteekin dituen harreman komunikatibo zuzenetan menperatzen ditu	Ume bakoitzarekin harreman indibidualak bultzatu
Komunikazioan aurrera egiteko, oso inportanteak dira afektiboki gratifikanteak diren harremanak	Umeentzako afektiboki betegarriak diren harremanak bultzatu
<i>2.taula: Hezitzaileak kontuan hartu beharrekoak eta egitekoak (Bigas, 2000)</i>	

Hizkuntzen ikaskuntza aztertzeke zein hizkuntzaren aspektu ezberdinak analizatzeko ikerketa soziolinguistikoak egin ohi dira, hauetan hainbat aldagai sozial aztertuz. Zeintzuk aldagai sozial aztertu aukeratzeko ikerketaren helburua eta tokian tokiko ezaugarriak kontuan izatea beharrezkoa da.

Gizartearen egituraketa moduek, esaterako, harreman zuzena dute ikerketa soziolinguistiko egiteko aldagaien hautaketan. Kasurako, gizarte konplexuek gizarte-estratifikazio handiagoa izan ohi dute, eta horrek, aldakortasun linguistiko handiagoa dakar; zenbat eta rol gehiago egon, orduan eta hizkuntza-errepertorio handiagoa beharko da eta alderantziz. [...] Euskararen kasuan, adibidez, normalizatua ez dagoenez, aldakortasun sozial eta estilistiko gutxi dago, normalizatuta dauden hizkuntzekin alderatuz gero (Zarraga eta lank., 2010:100).

Orokorrean, ikerketa soziolinguistikoetan gehien erabiltzen diren aldagaiak adina, sexua, maila soziokulturala, heziketa-maila eta etnia izaten dira.

Adinari dagokionez, azpimarratu beharra dago, umeetan ez dela nerabezaroan, gaztetan zein zahartzaroan bezala berba egiten. Adina aldagai konstantea da, hots, gizartean gerta daitezkeen aldaketa soziokultural edo politikoek zein gizarte-mailen arteko harremanak aldatu daitezke desberdintasunak handituz ala estutuz baina adin-tarteak beti izango dira berdinak (Zarraga eta lank., 2010).

Sexua aldagaitzat hartuz gero fonetikaren ¹ ikuspuntutik aztertu daiteke, non gizonezkoek nerabezaroan jasaten dituzten aldaketa hormonalek laringea beherantz egitea eta kordak luzeagoak izatea eragiten duten eta, horren ondorioz soinu

¹ "Fonetika eta fonologia hiztunok hotsak atera eta entzutean gertatzen denaz arduratzen dira. Hizkuntza fisikoki, fonetikoki, kanporatzen eta jasotzen dugu, eta, hori egin ahal izateko, gaitasun fonologikoa dugu" (Oñederra, 2004, 84.or).

sakonagoak igortzen dituzten. Emakumeei ere laringea lekuz aldatzen zaie, baina neurri txikiagoan eta ondorioz, soinuaren tonua oso gutxi jaitsiko zaie. Baina sexuan baino, gizabanakoen jokabideetan aurki daitezkeen ezberdintasunik sakon, sistematiko, iraunkor eta unibertsalenak generoaren inguruan antolatzen dira (Almeida, 2003).

Gizakiaren alderdi guztiak, arrazionala eta emozionala, kulturala eta soziala, banakakoa eta kolektiboa..., generoari egotzi dakizkiokeen ezberdintasunei begira antolaturik daude. Horregatik, gizabanakoen identitate soziala garatzeko, generoa kategoriarik garrantzitsuena den iritzia dago. [...] Gizonezkoen eta emakumezkoen gizarte-jokabideak aztertzean (berdinak edo ezberdinak diren eta zertan), askotan *sexu* eta *genero* kontzeptuak sinonimotzat hartu izan dira; baina zenbait autoreren ustez, ez dira guztiz baliokideak (Zarraga eta lank., 2010:101-102).

Sexu berba gizakien berezitasun biologikoak aipatzeko erabiltzea komenigarriagoa litzateke eta genero berba ezaugarri soziokulturalei erreferentzia egiteko (Eckert eta McConnell-Ginet, 1999); hots, sexua kategoria naturala litzateke eta generoa konbentzionala, ikasitakoa. Izan ere, “azterketa feministek, sexuaren eta generoaren arteko desberdintasun argigarria egiten dute” (Aristizabal, 2010, 108.or.). Beraz, giza espeziean iraunkorrak diren ezaugarri biologikoek ematen duten berezitasunari sexua deritzo. Generoa, ostera, gizarteak pertsoneri, duten sexuaren arabera, ezartzen dizkien gaitasun, jokaera zein jarrera multzoaz osatuta dago (Carbonell, 1996).

Hortaz, gaur egungo gizartean, “generoa da pertsonak sailkatzeko irizpide nagusia; genero kontzeptuak maskulinitasuna eta femeninitasuna eraikitzekeko prozesu psikosozialari egiten dio erreferentzia” (Agirre eta lank., 2007, 4.or.). Aipatutako femenino edo maskulino eraikuntza sozialari genero-identitate deritzo. Genero-identitateak sexu bakoitzari dagozkion jardueri eta jokabide-arauei erreferentzia egiten die besteak beste (Agirre eta lank., 2007). Genero-identitatearen eraikuntzaren hasiera pertsona baten sexua zein den jakitean ematen dela baieztatu dute aditu batzuek eta sozializazio prozesuaren bidez garatzen dela, zeinetan pertsona horren izateko, sentitzeko eta jarduteko era markatuko duen rol baten bidez esleitzen den (Agirre eta lank. 2007). Beste batzuek, ostera, genero-identitatea sexu biologikoaren menpe ez dagoela ziurtatu zuten, jaiotzatik bi generoei esleitu zaizkien esperientzia, erritu eta ohiturei baizik (Baker eta Stoller, 1968). Are gehiago, pertsonak jaiotzean

duten sexu biologikoagatik bi multzotan sailkatuak izaten dira, nesken edo mutilen multzoetan hain zuzen ere. Pertsonak duten banaketa biologikoak ugaltze-ezberdintasunak markatzen ditu, baina ez da jarrera, jokaera edo rol ezberdintasunen erantzule (García-Leiva, 2005). Beraz, genero identitatea gizartean errotuta dagoen gizon edo emakume izatearen definizioan, bakar batean, norbere burua sailkatzea litzateke (López, 1988).

Genero-identitatearen jabeakuntzari dagokionez, esan beharra dago, norbera gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun fisikoez ohartzen denean hasten dela. Hala ere, haurrei deigarriagoa suertatzen zaizkie azaleko ezberdintasunak; hala nola, orrazkera, janzkera, etab. sexu-organoenak baino (Freixas, 2012). Haurrek haien genero-identitatea 3 urterekin bereganatzen dutela esan daiteke, baina identitatearen garapen osoa 2 urtetik 7 urtera garatzen da apurka-apurka (Kohlberg, 1966).

Amaitzeko, azpimarratu beharra dago, genero-rolak gizartean hain finkatuta daudenez, oso zaila dela horiek ikasitako zerbait direla ulertzea (Agirre eta lank. 2007).

Ikerketa soziolinguistikoetan, zein hiztun talde bakoitzean, generoaren aldagaiak beste eragile batzuek baino garrantzia handiagoa hartzen badu ere; ikerketa gehienetan adinaren edo ikasketa-mailaren garrantzia handiagoa izan ohi da (Zarraga eta lank., 2010).

Maila soziokulturalari dagokionez, esan beharra dago, gizabanakoak komunitatean izango duen estatusa dauzkan errekurso ekonomikoei, heziketari edo lanbideari hertsiki lotuta dagoela. Aldagai honetan mailaketa egiteko (klase sozial baxua, ertain-baxua, ertaina, ertain-altua edo altua) beste aldagai batzuk izaten dira kontuan; ikasketa-maila, lanbidea edota familiako diru-sarrerak, besteak beste. Ikasketa-mailak, esate baterako, lotura zuzena du gizabanakoak erabiltzen duen hizkerarekin edo kodearekin. Ondorioz, ikasketa-maila baxua duen hiztunak kode murriztuan edo mugatuan egingo du berba eta ikasketa-maila altua duenak, berriz, kode landuagoan (Zarraga eta lank., 2010).

Lehen esan bezala, etniaren aldagaia ere hainbat ikerketa soziolinguistikotan kontuan hartu izan da gizabanakoaren hizkuntza-jokabidea azaltzeko. Etnia eragilearen ondorio linguistikoen garrantzia aldakorra izango da hiztunen bizi-baldintzen, bizi diren

gizartean lortzen duten integrazio-mailaren, taldearen kohesioaren edo bizitasun etnolinguistikoaren arabera (Zarraga eta lank., 2010).

Ikerketa soziolinguistikoetan hiztunen ama hizkuntza ere kontuan izan beharreko aldagaia izan daiteke, kasuak kasu. Ama hizkuntzak etxean gurasoengandik ikasitako lehen hizkuntzari egiten dio erreferentzia, aitaren hizkuntza ere izan daitekeena, noski. Lehen hizkuntza, haurtzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza izango litzateke, baina argi utzi behar da ama hizkuntza eta lehen hizkuntza ez direla guztiz sinonimoak; bi hizkuntza batera ikas daitezkeelako haurtzaroan. Bigarren hizkuntza lehen hizkuntzaren ondoren ikasten dena da, eskolan, autoikaskuntzaz zein zuzeneko esperientzien bidez (Zarraga eta lank., 2010). Bi hizkuntza ofizial dauden lurraldeetan bigarren hizkuntza, askotan, eskolan ikasi ohi da. Estatu Espainolean, bi hizkuntza ofizial dauden erkidegoetan bi hizkuntza-eredu jarri zituzten abian.

Antoni Milianek baliatzen dituen kategoriei jarraiki, alde batetik, *hautazko hizkuntza-separatismoa* legoke, eta bestetik, *hizkuntza-baterakuntza* edo *elebitasun osoa*. Lehen ereduak EAEn, Nafarroako eremu euskaldunetan, mistoan eta Valentzian aplikatzen da. Eredu horrek ikasleak hizkuntza ereduka banatzen ditu; bigarren sistemak, aldiz, ez ditu ikasleak banatzen, maila batetik gora, behinik behin. Hau da, lehen eskolatze-unean ikasle bakoitzaren ama-hizkuntza baliatzen bada ere, maila batetik aurrera ikasle guztiak elkarrekin jartzen dira eta denek hizkuntza berean jasotzen dute hezkuntza (Zarraga eta lank., 2010:257).

Hizkuntzak bizirik daudela ziurtatuz, esan daiteke, hainbat eragilek (foniko eta morfosintaktikoek, bilakaera historikoek, gizarte bilakaerek, adin tarteen arteko aldaketek, hizkuntza arrotzetako maileguez, eta abarrek) hizkuntzan aldakortasuna sortzen dutela, eragina beti maila berean gertatzen ez bada ere. Beraz, hizkuntzak bizirik dauden neurrian, ez dira estatikoak (Camino, 2009).

Hizkuntzaren bilakaera euskararen ahoskerarekin lotuz, euskal txistukarien neutralizazioaz mintzo daiteke. Txistukariak “frikari zein afrikatu batzuek sortzen duten hotsaren eta txistuaren arteko antzari dagokio” (Oñederra, 2004, 148.or.). Euskal Herriko lurralde euskaldunetan, leku batzuetan, euskal “s” eta “z”-ren arteko kontrastea galdu da (3.taula), “x” eta “s”-ren artekoa mantenduz (Hualde, 2010).

“s”	> “s”	“seseo” frikariekin
“z”		
“ts”	> “tz”	“tzetzeo”
“tz”		
<i>3.taula: Euskal txistukarien neutralizazioa, joera nagusia (Hualde, 2010)</i>		

Euskarán, txistukarien neutralizazioa Bilbo inguruan hasi izana gaztelaniaren eraginagatik izan zitekeela ondorioztatu daiteke (Michelena, 1965). Dena den, euskarán “s” eta “x” duten parekotasun fonetikoagatik haien neutralizazioa espero zitekeen eta ez “s” eta “z”-ren artekoa.

Txistukarien neutralizazioari jarraiki, Bizkaiko lurraldearen zati batean ere, hainbat neutralizazio egon dira berez ezberdinak ziren lau segmentuen artean, azkenengoa gaur egun garatzen ari da (4.taula) (Hualde, 2000).

1.go fasea	2.fasea	3.fasea	4.fasea
“tt”	“tt”	“tx”	“tz”
“tx”	“tx”	“tz”	
“ts”	“tz”		
“tz”			
<i>4.taula: Afrikatuén neutralizazio historikoa euskarán, Bizkaian (Hualde, 2000)</i>			

4.taulan azaltzen den bezala, “tt” segmentua afrikatu gisa sailkatua izan da bere soinuaren analisi espektrografikoa egiterako orduan eztanda unean frikzio adierazgarria dagoelako (Hualde, 2000). “Afrikatuak hots trabakariak dira. Horrek esan nahi du entzulearen belarriak jasotzen duen hotsa traba batek sortua dela: hiztunak birikietatik kanporatu duen aireari, ahots-bidean, ebakera-organoez egindako trabak. entzulearen belarriak jasotzen duen hotsa traba batek sortua da.” (Oñederra, 2004,

24.or.). Afrikatu hobikari lepokari “tz” /ts/ eta afrikatu sabai aurrekoen “tx” /tʃ/ neutralizazioari dagokionez, esan beharra dago, Bizkaiko eremu askotan azkar hedatu dela eta gazte askok ez dutela bereizten (Hualde, 2010). Gazteei egindako hainbat ikerketa soziolinguistikotan (Gaminde, 2010 eta Gaminde, Unamuno, Iglesias, Gandarias, 2013, besteak beste) euskarazko afrikatuak ahoskatzerako orduan, emakumeek “tz” eta gizonak “tx” egiteko joera dutela baieztatu izan da hain zuzen ere (Gaminde, 2010). Aipatutako fenomenoak Bilboko eta Euskal Herriko beste hiri batzuetako gaztelaniarekin gertatzen ari denarekin harremana dauka, non “ch” /tʃ/ “tz” /ts/ izatera pasatzen den, fenomeno soziolinguistiko honen ikerketa sakonik ez badago ere (Hualde, 2000). Euskarazko “tz” /ts/ eta “tx” /tʃ/ fonema ezberdinak alofono² gisa fonema bakar bezala ahoskatzeren ondorioz lehen aipatutako gaztelaniaren fenomeno soziolinguistikoa sortu dela ikusi dute euskal diaktologian adituak direnak (Gaminde, 2010). Dena den, esan beharra dago, Bizkaiko euskarak izandako aipatutako neutralizazioa berehala hedatu dela azken gazte-belaunaldietako euskaldunengan gaztelaniak izandako eraginaren ondorioz, zeinetan “tz” /ts/ eta “tx” /tʃ/ alofonoak diren (Hualde, 2010).

2. Metodologia

Atal honetan lanaren helburua betetzeko eta ikerketa aurrera eramateko emandako pausuak agertzen dira hurrenez hurren. Lehenengo, planteatutako azterketa egin ahal izateko datuak lortzeko erabilitako metodologia azaltzen da eta horren ostean, datu horiek aztertzeko erabilitako metodologia.

2.1. Datuak lortzeko metodologia

Azterketa egin ahal izateko eta lanaren helburuak bete ahal izateko 50 informatzaile izan ditugu. Adina, generoa eta ama hizkuntza izan dira gure ikerketan kontuan izan ditugun aldagaiak.

² “Alofono dira hiztun arruntak hautematen ez dituen hots aldaerak, berak zein bestek ahoskatu” (Oñederra, 2004, 39.or).

Adina aldagai garrantzitsua den edo ez aztertzeko denbora aparentea deritzon metodologia erabili dugu (Chambers eta Trudgill, 1994); hortaz, adin-talde ezberdinetako informatzaileen datuak jaso ditugu aldi berean, denbora tarte horretan gerta daitezkeen aldaketez ohartzeko. Generoaren aldagaiaren eragina aztertzeko, hartu dugun laginean neska eta mutilen proportzioa nahiko orekatua izan da. Ama hizkuntzaren aldagaia ere kontuan izango dugu azterketa egiterako orduan aldagai garrantzitsua den edo ez ondorioztatzeko.

Izandako lekukoak guztira 50 izan dira, 25 2012an jaiotakoak eta beste 25ak 2010ean. 2012an jaiotakoaren artean 14 neska eta 11 mutil ditugu eta 2010ean jaiotakoaren artean 15 neska eta 10 mutil. 50 informatzaileetatik 42 haurren ama hizkuntza euskara da eta beste 8rena gaztelania. Informatzaile guztiak Uribe Kostakoak dira, Sopelakoak gehienak eta denek Sopelako Ander Deuna Ikastolan ikasten dute (5.taula).

Informatzaileak					
Adina (noiz jaiotak)		Generoa		Ama hizkuntza	
2010	2012	Neska	Mutila	Euskara	Gaztelania
25	25	29	21	42	8
<i>5. taula: Informatzaile kopurua aztertutako aldagai soziologikoen arabera</i>					


Datuak lortzeko informatzaileei inkesta laburra egin zaie, irudi batzuk erakutsiz (1.eranskina) eta zein animalia edo gorputz atal ikusten zuten galdetuz. Informatzaileek ikusitako irudiak animaliak eta gorputz atalak izan dira, *txakurra*, *tximeleta*, *txerria*, *hartz*, *jantzia* eta *atzamarra* besteak beste. Lekukoaren erantzunak mugikor batekin grabatuak izan dira (Doogee markakoa) “.3gpp” formatuan. Grabazioak “.wav” formatura bihurtzeko internet bidezko doako bihurgailua erabili izan da³.

³ Erabili izan den bihurgailua <http://media.io/es/> izan da.


2.2. Datuak aztertzeko metodologia

Datuen azterketa akustikoa egiteko “Praat” programa erabili da (Boersma eta Weenink, 2015). Programa honen bitartez sonogramak ikusi daitezke eta bertan markak zein etiketak jarriz, afrikatuen ahoskera zein izan den argitu daiteke.

1. eta 2. irudietan Praat programarekin (Boersma eta Weenink, 2015) egindako markaketa ikusi daiteke. Markaketa honen bitartez, lekukoek inkestako hitz bakoitzean zein afrikatu erabili duten aztertuko da; “tx” /tʃ/ afrikatu sabai aurrekoa edo “tz” /ts/ afrikatu hobikari lepokaria (Oñederra, 2004). Horretarako soinuak sortutako espektrogramari erreparatuko zaio, soinuaren hertsigunea, leherketa unea eta zarata unea ezberdinak direlako afrikatu ahoskabe sabai aurrekoetan eta afrikatu hobikari lepokarietan.



1.irudia: lekuko batek esandako “txakurra” hitzaren analisi akustikoa



2.irudia:lekuko batek esandako “hartza” hitzaren analisi akustikoa

Azterketa akustikoa egin ostean eta atal honen hasieran aipatutako hiru aldagai sozialak kontuan izanda, datu basea sortu genuen Microsoft Excell programaz baliatuta. Excell programan datuak sartzeko aldagaiei balio ezberdinak eman izan zaizkie. Genero aldagaian, adibidez, 1 balioa eman zaie neskei eta 2 balioa mutilei; adinaren aldagaian 1 balioa eman zaie 2012an jaiotakoei eta 2 2010ean jaiotakoei; eta, bukatzeko, ama hizkuntzaren aldagaian, 1 balioa eman zaie ama hizkuntza euskara dutenei eta 2 balioa erdara dutenei. Aldagaiei balio ezberdinak eman zaizkie SPSS programa⁴ (Pardo eta Ruiz, 2002) erabiltzean neurketa egin ahal izateko. Programa honen bitartez, bildutako datuetan oinarrituz, aztertutako aldagaiak estatistikoki esanguratsuak diren ala ez jakin ahal izango dugu.

3. Datuen azterketa

Aurreko atalean esan bezala, datuen azterketa SPSS programarekin egin da. Orokorrean aurreikusitako emaitzak eta azterketan izandakoak bat ez datozela esan beharra dago. Egindako inkestan informatzailek *txakurra*, *tximeleta*, *txerria*, *hartza*, *jantzia* eta *atzamarra* hitzak esan behar zituzten. 50 informatzaile zeuden heinean eta, afrikatu baikotzako hiru hitz aurkezten zitzaizkiela kontuan izanik, %50a “tx” /tʃ/ eta %50a “tz” /ts/ ahoskatzea aurreikusi zitekeen. Dena den, azterketak egin ostean emaitza bestelakoa izan da (6.taula); %43,67a “tx” /tʃ/ eta %49,33a “tz” /ts/ ahoskatuz.

Afrikatua	Aurreikuspena	Azterketaren emaitza
“tx” /tʃ/	150 (%50)	131 (%43,67)
“tz” /ts/	150 (%50)	148 (%49,33)

6. taula: Informatzaileek ahoskatutako afrikatu kopurua orokorra

⁴ Statistical Package for the Social Sciences edo “Statistical Product and Service Solutions” estatistika programa.

Datu orokorrak aztertuta, aipatu beharra dago, %7a ez direla ez “tx” /tʃ/ ezta “tz” /ts/ ahoskatuak izan ere, hainbat zailtasun zirela medio. Gehienbat, haurrek zailtasunak izan dituztela *jantzia*, *hartza* eta *txerria* hitzak ahoskatzeko orduan.

Aurkeztutako datuak adina, generoa eta ama hizkuntza aldagaiak kontuan izanik ere aztertu ditugu.

Afrikatua	2010ean jaiotakoak (25 ume)		2012an jaiotakoak (25 ume)	
	Aurreikuspena	Azterketaren emaitza	Aurreikuspena	Azterketaren emaitza
“tx” /tʃ/	75 (%50)	62 (%41,33)	75 (%50)	69 (%46)
“tz” /ts/	75 (%50)	84 (%56)	75 (%50)	63 (%42)

7. taula: Informatzaileek ahoskatutako afrikatuak adinaren arabera

7.taulan 50 informatzaileak haien belaunaldiaren arabera sailkatuta azaltzen dira. Bertan ikus daitekeen bezala, 2010ean jaiotako umeen %41,33ak “tx” /tʃ/ ahoskatzen du eta %56ak “tz” /ts/. 2012an jaiotako umeek, berriz, %46ak “tx” /tʃ/ ahoskatzen du eta %42ak “tz” /ts/. Azpimarratu beharra dago 2010ean jaiotako lau umek *jantzia* hitza esateko zailtasunak izan dituztela; 2012an jaiotakoen artean, aldiz, zailtasun handiena *hartza* eta *txerria* hitzak ahoskatzerako orduan izan dira.

7.taulan adinaren arabera agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak diren ikusteko khi-karratuaren (χ^2) proba erabili izan da. Khi-karratuaren proba erabili da ($\alpha=0.05$ adierazgarritasun mailaz), aztertutako aldagaiak kualitatiboak eta nominalak zirelako. Aldagaiak kualitatiboak izanik etiketa bat jarri izan zaio balio bakoitzari neurketa egin ahal izateko; kasu honetan, 2010ean jaiotakoei 2 etiketa eta 2012an jaiotakoei 1 etiketa. Khi karratuaren proba eginda emaitzak ez dira estatistikoki esanguratsuak ($\chi^2= (a.m.^5 1) 2,46; p.^6= 0,116$).

8.taulan informatzaileak generoaren arabera sailkatuta azaltzen dira, bi genero kategoria kontuan izanik. Kategoria bakoitzean informatzaile kopuru ezberdina dago,

⁵ a.m. laburdura “askatasun maila” adierazteko erabili da.

⁶ p. laburdura “probabilitatea” adierazteko erabili da.

esate baterako, 29 neska daude zeintzuetatik %22,41ak “tx” /tʃ/ ahoskatzen duen eta %70,69ak “tz” /ts/. Mutilei dagokienez, 21 direla kontuan izanik, %73,02ak “tx” /tʃ/ ahoskatzen du eta %19,84ak “tz” /ts/. Esan beharra dago, nesken artean *jantzia* hitza esateko zailtasunak izan dituztela batez ere. Mutilen artean, berriz, *hartza*, *txerria* zein *tximeleta* hitzak ahoskatzeko zailtasunak izan dituzte.

Afrikatua	Neskak (29 ume)		Mutilak (21 ume)	
	Aurreikuspena	Azterketaren emaitza	Aurreikuspena	Azterketaren emaitza
“tx” /tʃ/	87 (%50)	39 (%22,41)	63 (%50)	92 (%73,02)
“tz” /ts/	87 (%50)	123 (%70,69)	63 (%50)	25 (%19,84)

8. taula: Informatzaileek ahoskatutako afrikatuak generoaren arabera

8.taulan agertzen diren ehunekoei erreparatuz, eta aldagai honi dagokion khi-karratuaren proba egin ostean generoaren aldagaiak eragin zuzena duela afrikatuen ahoskeran baieztatu dezakegu ($\chi^2 =$ (a.m. 1) 81,189; p. = 0,000). Beraz, generoaren aldagaia esanguratsua da afrikatuen ahoskera aztertzerako orduan. Are gehiago, neskek afrikatu gehienak tz /ts/ afrikatu hobikari lepokari (Oñederra, 2004) gisa ahoskatzeko joera daukaten bitartean mutilek afrikatu gehienak tx /tʃ/ afrikatu sabai aurrekoa (Oñederra, 2004) gisa ahoskatzeko joera daukatela ziurtatu daiteke.

Emaitzen analisiarekin bukatzeko, eta datuak ama hizkuntzaren arabera aztertuta (9. taula), ikusi daiteke kategoria bakoitzean informatzaile kopuru ezberdina dagoela eta aldea oso nabaria dela. Ama hizkuntza euskara duten umeak 42 dira, horietatik %42,46ak “tx” /tʃ/ ahoskatzen du eta %52,77ak “tz” /ts/. Ama hizkuntza gaztelania duten umei dagokionez, 8 direla kontuan izanik, %50ak “tx” /tʃ/ ahoskatzen du eta %31,25ak “tz” /ts/. Aipatu beharra dago, ama hizkuntza euskara dutenen artean *jantzia* hitza esateko zailtasunak izan dituztela eta ama hizkuntza gaztelania izan dutenen artean, aldiz, *txerria* hitza.

Afrikatua	Euskara (42 ume)		Gaztelania (8 ume)	
	Aurreikuspena	Azterketaren emaitza	Aurreikuspena	Azterketaren emaitza
“tx” /tʃ/	126 (%50)	107 (%42,46)	24 (%50)	24 (%50)
“tz” /ts/	126 (%50)	133 (%52,77)	24 (%50)	15 (%31,25)

9. taula: Informatzaileek ahoskatutako afrikatuak haien ama hizkuntzaren arabera

9. taulan agertzen diren ehunekoak kontuan izanik, eta ama hizkuntzaren aldagaiari dagokion khi-karratuaren proba egin ostean ama hizkuntzaren aldagaiak eragina duela afrikatuen ahoskeran ($\chi^2 =$ (a.m. 1) 3,872; $p = 0,049$). Hau da, ama hizkuntza euskara duten hurrek afrikatu gehienak “tz” /ts/ afrikatu hobikari lepokari (Oñederra, 2004) gisa ahoskatzeko joera daukaten bitartean ama hizkuntza gaztelania duten hurrek afrikatu gehienak “tx” /tʃ/ afrikatu sabai aurrekoa (Oñederra, 2004) ahoskatzeko joera daukate.

Hortaz, egindako azterketaren arabera, afrikatuen ahoskera aztertzerako orduan haurraren ama hizkuntza zein den esanguratsua dela esan daiteke baina kontuan izan beharra dago informatzaileen artean ama hizkuntza euskara zutenen kopurua askoz handiagoa zela. Ondorioz, gure ikerketan aldagai hau esanguratsua den arren, aldagaia berriro aztertu beharko litzateke beste ikerketa batean zeinetan lekukoaren ama hizkuntzaren proportzioa orekatuagoa den.

4. Ondorioak

Lanari amaiera emateko, atal honetan jasotako datuen azterketa egin ostean ateratako ondorioak aurkeztuko dira. Datuen azterketa egiterako orduan argi geratu da, adina ez bezala, generoa eta ama hizkuntza aldagai esanguratsuak direla Haur Hezkuntzako umeen afrikatuen ahoskeran.

Hasteko, adinaren aldagaia aztertu dugu, zeinen emaitzak aldagai esanguratsua ez dela adierazi duen. Adina aldagai esanguratsua ez izatearen arrazoa aztertutako adin

tarteen arteko ezberdintasun eskasa izan daiteke, bi adin tarteen artean bi urteko ezberdintasuna baitago bakarrik.

Generoaren aldagaia aztertzean neskek afrikatu gehienak “tz” /ts/ gisa ahoskatzeko joera daukaten bitartean mutilek afrikatu gehienak “tx” /tʃ/ gisa ahoskatzeko joera daukatela argi ikusi dugu. Aipatutako fenomenoak genero-identitatearen berrespena izan daiteke eta afrikatuen neutralizazio hau hizkuntza bizirik egotearen seinale gisa hartu genezake. Alde batetik, genero-identitatearen berrespena izan daitekeela baieztatu dugu, lehen esan bezala, genero-identitatearen eraikuntzaren garapena sozializazio prozesuaren bidez garatzen delako (Agirre eta lank. 2007) umea 2 urte dituenetik 7 urte dituenera arte (Kohlberg, 1966). Bestetik, afrikatuen neutralizazio hau hizkuntza bizirik egotearen seinale dela esan dugu, hiztun askorentzat “tz” /ts/ eta “tx” /tʃ/ alofonoak direnez (Hualde, 2010); afrikatuak naturaltasun osoz gauzatzen dituztelako eta hizkuntzak erabileraren ondorioz eraldatzen doazelako.

Azkenik, ama hizkuntzaren aldagaia aztertzean ama hizkuntza euskara duten haurrek afrikatu gehienak “tz” /ts/ gisa ahoskatzeko joera daukaten bitartean ama hizkuntza gaztelania dutenek “tx” /tʃ/ gisa ahoskatzeko joera daukate. Gainera, lan honen hasieran aipatu dugun bezala, haurrek hizkuntza haien ingurune hurbileko helduengatik ikasten dute batez ere. Ama hizkuntza euskara izan dutenek haien amaren ahoskera izan dute eredu, batez ere; haur gehienek heldu erreferenteak (amamak, zaintzaileak, irakasleak, e.a.) emakumezkoak izan ohi direlako. Ama hizkuntza erdara izan dutenek, aldiz, emakumezko erreferentea izan arren, afrikatuak gauzatzeko ahoskatze eredu ezberdina jaso dute gaztelaniaz afrikatu erabiliena “ch” /tʃ/ delako. Dena den, lehen aipatu bezala, kontuan izan behar dugu gaztelanian ere “ch” /tʃ/ “tz” /ts/ izatera pasatzen hasi dela, fenomeno soziolinguistiko honen ikerketa sakonik ez badago ere (Hualde, 2000). Horrenbestez, azterketa egiterako orduan lekukoaren artean ama hizkuntzaren proportzioan alde nabaria zegoenez, beste ikerketa bat egin beharko genuke aldagai honen eragina ziurtatzeko, lekukoaren ama hizkuntzaren proportzioa orekatuagoa izanik.

Laburbilduz, eta orain aipatutakoa kontuan izanik, ikerketa enpirikoarekin jarraitu beharra dagoela azpimarratu nahiko nuke. Faktore sozial gehiago ikertzea interesgarria litzateke, herria eta ikastetxea besteak beste. Era berean, adinaren aldagaia

esanguratsua izan daitekeen ala ez ziurtatzeko adin tarte handiagoko lekuko ezberdinei ere ikerketa egitea ondo legoke. Are gehiago, hurrek hizkuntza haien ingurune hurbileko helduengatik ikasten dutela hainbatetan esan dugu lan honetan zehar eta haurrentzat erreferenteak diren helduetako batzuk haien irakasleak direnez, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako irakasleei ere ikerketa egitea interesgarria litzateke. Izan ere, afrikatuen ahoskera ez zuzena egiten duten helduak haurren eredu diren heinean, hurrek afrikatuen ahoskera zuzena ikasi dezaketen ala ez jakitea interesgarria litzateke.

Dena den, azterketa honen garapena gauzatu bitartean erantzun bako hainbat galdera sortu dira: eskolak esku hartu beharko luke afrikatuen ahoskera zuzena sustatuz? Ala hizkuntzaren sistema fonologikoaren bilakaerari eta neutralizazioei bidea utzi behar zaie euskara bizirik dagoela aldarrikatzeko?

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Agirre, E., Lecubarri, I. eta Eguzkitza, J.M. (2012). *Praktiketan SPSSrekin*. Bilbo: EHUko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola.
- Agirre, X., Aguiar, X., Caballero, I., Celis, R., Díaz, S., Lasa, L., Ramirez de Olano, I. eta Zarraga, M. (2007). *CEAR-Euskadiren Teoria-koadernoak. [I] Generoa eta genero-ikuspegia*. Bilbo: CEAR-Euskadi.
- Almeida, M. (2003). *Sociolingüística*. La Laguna: La Lagunako Unibertsitatea.
- Arguelles, G. eta Zelaieta, E. (2015). Ahozko adierazpena eta dramatizazioa Haur Hezkuntzako irakasleen baliabide. *Tantak*, 27(1), 87-105.
- Aristizabal, P. (2010). *Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan: Gasteizko Irakasle Eskolaren Kasua*. Gasteiz: EHU.
- Baker, H. J. eta Stoller, R. J. (1968). Can a biological force contribute to gender identity?. *American Journal of Psychiatry*, 124(12), 1653-1658.
- Bigas, M. (2000). El lenguaje oral en la escuela infantil. Bigas, M. eta Correig, M., *Didáctica de la lengua en la educación infantil (43-70.or.)*. Bartzelona: Síntesis.
- Bigas, M. (2008). El lenguaje oral en la escuela infantil. *Glosas Didácticas; Revista electrónica internacional*, 17(1), 33-39.
- Boersma, P. eta Weenink, D. (2015). *Praat: doing phonetics by computer, Version 5.1*. [Computer program]. <http://www.praat.org>.
- Camino, I. (2009). Hizkuntza-aldakortasunari Amiküzetik so. *Lapurdum; Euskal ikerketen aldizkaria*, (13). Sarean, 2016/05/06an <http://lapurdum.revues.org/1979>.
- Carbonell, J. (1996). *Educación sexista y coeducación. La escuela entre la utopía y la realidad. Diez temas de sociología de la educación*. Bartzelona: Octaedro.
- Chambers, J.K. eta Trudgill, P. (1994). *La dialectología*. Madril: Visor.
- Elhuyar Fundazioa. (1996). Giza-ahotsa. Elhuyar Zientzia. Sarean, 2016/05/15ean <http://zientzia.eus/artikuluak/giza-ahotsa/>.
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (1997). *Aho hizkuntzaren sustapena haur hezkuntzan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (2010). *Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu KurriKularra Euskal Autonomi Erkidegoan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Eckert, P. eta McConnell-Ginet, S. (1999). "New generalizations and explanations in language and gender research". *Language in Society* 28(2): 185-201.
- Freixas, A. (2012). La adquisición del género: el lugar de la educación en el desarrollo de la identidad sexual. *Apuntes de Psicología*, 30(1-3), 155-164.
- Gaminde, I. (2010). *Bizkaiko gazteen prosodiaz: euskaraz eta gaztelaniaz*. Bilbo: Mendebalde Kultur Alkartea.
- Gaminde, I., Romero, A. eta Legarra, H. (2012). *Gramatika eta Hizkuntz Bariazioa Bermeon*. Bermeoko Udala eta Campos Hegaluzea.
- Gaminde, I., Etxebarria, A., Garay, U. eta Romero, A. (2013). Esaldi barruko eten moten pertzepzioaz. *Ikastorratza; Didaktikarako e-aldizkaria*, 11(1). Sarean, 2016/04/30ean http://www.ehu.es/ikastorratza/11_alea/ahotsKalitate.pdf.
- Gaminde, I., Unamuno, L., Iglesias, A. eta Gandarias, L. (2013). Bizkaiko neska gazteen kontsonante afrikatuen izari akustikoez. *Euskalorratza; aldizkari digitala*, 23(1), 6-13. Sarean, 2016/04/30ean <http://mendebalde.eus/euskalingua/euskalingua-23/>.
- García-Leiva, P. (2005). Identidad de género: modelos explicativos. *Escritos de Psicología*, 7(1), 71-81.
- Garro, E., Ozaeta, A. eta Sanz, M. (2009). Ahozko Hizkuntza lantzen, Haur Hezkuntzan hasi eta unibertsitateraino. *Hik hasi*, 140(1), 6-13.
- Guibourg, I. (2000): "El desarrollo de la comunicación", Bigas, M. eta Correig, M., Didáctica de la lengua en la educación infantil (13-41.or.). Bartzelona: Síntesis.
- Hualde, J. I. (2000). Bizkaiko kostaldeko hizkerak atzo, gaur eta bihar. K. Zuazo (ed.)-en, *Dialektologia gaiak*. (13-25 or.). Gasteiz: UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundia.
- Hualde, J. I. (2010). Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano. *Oihenart*, 25(1), 89-116.
- Kohlberg, L. (1966). Análisis de los conceptos y actitudes infantiles relativos al papel sexual desde el punto de vista del desarrollo cognitivo. E.E. Maccoby (Ed.), *Desarrollo de las diferencias sexuales*. Madril: Marova.
- López, F. (1988). Adquisición y desarrollo de la identidad sexual y de género. J. Fernández (koord.), *Nuevas perspectivas en el desarrollo del sexo y del género*. Madril: Pirámide.
- Michelena, L. (1965). "Lat. s: el testimonio vasco". *Actas del XI Congreso Internacional de Lingüística y Filología Románicas*. Madril; 473-489. Reimpreso en Michelena, 1985; 282-295 or.

Oñederra, M. L. (2004). *Fonetika Fonologia Hitzez Hitz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.

Pardo, A., eta Ruiz, M. Á. (2002). *SPSS 11 Guía para el análisis de datos*. Madril: McGraw-Hill.

Pérez, C. (2004). *Técnicas de análisis multivariante de datos. Aplicaciones con SPSS*. Madril: Pearson Educación.

Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernandez, J.M., Joly, L., Larrea, I., Martinez, L.V., Uranga, B. eta Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ERANSKINAK

1.eranskina

